

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2012ko martxoaren 16a. IX. urtea. 2.378. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Martxoak 29ko greba orokorrak lau alderdiren atxikimendua jaso du

Tolosaldeko EA, ezker abertzalea, Aralar eta Alternatiba lan erreformaren aurka azaldu dira eta biharko giza katearekin bat egin dute **3**

Tolosaldeko Triatloi Taldeko Aranburu eta Gaztañaga, Euskadiko txapelkun

Isabako proban egindako neguko triatloieko txapelketa irabazi dute Igor Aranburu tolosarrak eta Maider Gaztañaga ordiziarrak **6**



Maider Gaztañaga eta Igor Aranburu triatlolariak. HITZA

Abel Barriola eta Oinatz Bengoetxea pilotari leitzarren lehia izango da gaur

Bi gazteen ustez, Binakako Txapelketako partida gogorra izango da; norgehiagoka «tentsio handikoa» izango dela dio Barriolak **7**



TURKIZU

→ **Emakumeen errealitatea, arte bihurtuta.** Tolosaldeko hainbat artistaren lanak biltzen dituen erakusketa ikusi daiteke Tolosako Aranburu jauregian, apirilaren 14a bitarte. AurrezAurre egitasmoaren barruan kokatu behar da arte bilduma, eta helburua emakumeek sortutako lana plazaratzea da. **4**



SHUYANA
EKOINZENTZA

Gorputzeko bonua 12 sesio
+
Plataforma bonua 12 sesio

Lehen: 730 euro
Orain: 620 euro
Aurrezten dezuna: 110 euro

Iraupen data: Martxoaren 17tik 30ra.

ESTETIKA: Eskolapioetako Lorategiak 3, 1A • Tel.: 943 675 489 **KOSMETIKA:** Korreo 1 • Tel.: 943 671 468

Tolosak Udalak hastapenetako zerbitzu izaera itzuli nahi dio udaltzaingoari. Uniformeetatik 'polizia' hitza kendu eta auzoetako presentzia areagotu nahi du.

'Agur' poliziari

Gorka Otaegi

Udaltzaingoa ala polizia? Eguzki-loreala ala herriko armarría? Udal gobernuak aurreko legealdian udaltzaingoari ezarritako zenbait ikur aldatzearekin diola azaldu zuen orain hila-bete batzuk. Udal sailari polizia izaera kendu eta garai bateko herritarrekiko gertutasuna itzuli nahi dio udalak, besteak beste, udaltzainak kale eta auzo guztietan zehar ibiliz, auzotarrei zerbitzu eskainiz.

Agintarien arabera, arazozen iturria Eusko Jaurlaritzak udaltzaingoa bateratzeko aitzakiarekin egindako Polizien Legea da; herriko zaindariak «polizi egituratar inguratu nahi dituen». Lanpostuen behin-behinekotasun handia ere salatu dute.

Denbora gutxi irau du *polizia* hitzak udaltzainen bizkarretan. Eusko Jaurlaritzako poliziaren lege berriaren harira ezarritako izendapen horrek ez du udal berriaren oniritzik izan. Herri-zaingo sailaren arabera, udaltzainen uniforme eta ikur berri bateratuen helburua da atzerritarrek udaltzainak begi kolpe batez identifikatzea. TAOko langile, mugikortasun agente eta bestelakoengandik bereiziz. Baina, Tolosako udal gobernuarentzat udaltzaingoa ez da polizia. «Herri honek baditu nahikoa gorputz polizial», dio Tolosako alkate Ibai Iriartek. «Udaltzaingoa, polizia baino gehiago udal sail bat da; trafikoa, mugikortasunari, herritarren deiei, giltzak etxean utzi dituenari, notifikazio bat eman be-

har zaionari... irtenbidea eman behar diena», gaineratu du.

Koordinazioa ala asimilatzea? Rodolfo Aresek zuzentzen duen Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo sailak polizia arautegi berriak Er-tzaintza eta udaltzaingoa koordinatzeaz ere hitz egiten du. Udalak ez du asmo hori begi txarrez ikusten. Baina, ez du onartzen koordinazioa aitzakiaz hartuta egin den udaltzaingoa polizia egituratar inguratzeko saiakera. «Neurri batean, udaltzaingoiari betiko izaera galarazi nahi izan zaio. Hastapenetako gertuko zerbitzu eskaini behar luke, garai berrietako beharretara egokituz», azaldu du.

Udalak berebiziko garrantzia eman dio sail horren kudeaketari. Horregatik, alkatea bera da udaltzaingoa eta Mugikortasuna Batzordearen burua. «Sail handia da, 30 pertsonen osatua. Horrez gain, herritar askorekin harremanik zuzenena duen udal saila da; kalean daude eta zerbitzu bat eskaini behar dute», azaldu du Iriartek.

Autoritatea, baina gertukoa

Askok kontrakoa uste badute ere, udalak ez du kontraesanik ikusten gertutasun eta autoritatearen artean: «Autoritatea ez da autoritarismoa. Udaltzainaren autoritatearekiko errespetua eta herritarrekiko zerbitzari izaera elkarloturik daude. Isunak jar-tzea ez zaio inori gustatzen, baina, ordenu bat mantendu behar da, elkarbizitza egokia izan da-din».

Horren harira, udal zaindarien



Herritarrekiko gertutasuna itzuli nahi diote Udaltzaingoari. G. Otaegi

filosofia aldaketak ez du isun kopuruan eraginik izango: «Askoz zorrotzagoak izan gaitzake. Udalak ez du eman isunen bidez ahalik eta diru gehien biltzeko inolako agindurik. Baina, onartu ezin duguna da batzuek arauak behin eta berriz urratzea. Ezin dira norberaren interesak guztion interesen gainetik jarri».

Alkateak nabarmendu du ezinbestekoa dela zerbitzua eskaintzearen eta ordenua mantentzearen arteko oreka bilatzea. Eginkizun horretan funtsezkoak dira jokaerak: «Kontuan izan behar dugu gauzak esan eta egiteko ere duten garrantzia. Hiritarrak errespetuz tratatu behar dira». Jokaerena, ordea, bi noranzkoko

eskaera da. Gobernuak jakin badakielako udaltzaingoa «herritarren begietan» dagoela, funtzio publiko zuzena egiten duelako.

«Udalak beraien profesionaltasunari babes osoa eskaintzen dio eta herritarrei ere haien lanarekiko begirunea izatea eskatzen diegu», gaineratu du.

Landa auzoetan ere bai

Hiritar horiek landa auzoetakoak ere badira: «Gainerako tolosarrek adina eskubide dituzte, eta beraiak ere jaso behar dute udaltzaingoa zerbitzua».

Horregatik, ekimena abiarazi dute udal zaindaria gune horietara gerturatzeko: tarteka, auzo bakoitzak udaltzainen bisita jaso-

tzen du, buelta bat eman eta bizilagunekin egoteko.

Behin behineko lanpostuak

Bilduren Gobernuak kideek langileen behin behinekotasun handia duen Udaltzaingoa topatu dutela salatzen dute. Adibide batekin islatzen du egoera Ibai Iriartek: «Udaltzaingoa bi buru eta bost kabo ditu. Azken horietako batek izan ezik, beste guztiak behin behineko kontratuak dituzte. Antzeko zerbitzuak gertatzen da gainerako kideekin ere».

Oposaketak zintzilik

Egoerari irtenbidea eman asmoz, Udalak udaltzain plazak atera eta oposaketak antolatzea erabaki zuen: «Langileri egonkorra beharrezkoa da. Batetik, udaltzainek herria ondo ezagutu dezaten eta, bestetik, herritarrek beren udaltzainak nortzuk diren jakin dezaten». Dagoeneko egina zuten 2012an aterako ziren plazen zerrenda, azterketen kronograma... Baina, oposaketak publikoak debekatzen dituen Espainiako Gobernuaren dekretuak bete-betean geldiarazi du plangintza: «Erakunde publiko guztiak antzeko egoeran gaude. Legea oso zurrunda da. Hala ere, ikusi egin beharko dugu norbaitek zirriri-turen bat bilatzen dion».

Agente zibikoak ere herritarren zerbitzura

G.O.

Arropa laranjak janzen dituzte, bularrean Tolosako armarría daramate eta bizkarrean *Agente Zibikoak* errotulua. Tolosako Udalaren langile berriak dira, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu 4000 programaren harira kontratatutako hiru langabetu. Eguberrietatik kaleetan barrena ikus ditzakegu. Gabonetan merkataritza guneak zaintzen aritu ziren segurtasun plana indartuz. Hemendik aurrera, ordenantzeekin lotuak dauden beste zenbait eginkizun ere izango dituzte: txakurrak, kartoiak, haur parkeetan bizikletaren erabilpena... Informatzailer lanak

egin dituzte, ordenantzetako arauak hausten dituenari egin duena ez dagoela ondo jakinaraziz. Bestalde, udalak eguneroko martxan egin ezin dituen hainbat lan ere burutu dituzte langileok: herrian zehar oker edo puskatuta dauden higigarriak zerrendatu, haur parkeetan dauden aparailuak berrikusi... Orain, herriko garaje guztien zerrenda egiten ari dira, baita pintura eta seinaleztapen aldetik nola dauden aztertzen ere.

Hiru lagun dira: bi mutil eta neska bat. Enplegu sailak kudeatu du aukeraketa Gizarte Zerbitzuetako sailetik emandako zerrenda batetik abiatuz. Lan elka-

rrizketak egin ostean aukeratu dira. Asteleheneetik ostiralera egiten dute lan. Goizez, bederatzietatik ordu batera eta arratsaldean, lauretatik zazpi arte. Dena den, udaletik adierazi dute egutegia beharren arabera alda daitekeela. Udala enplegu programarekin ahalik eta jende gehien laguntzen ahalegindu dela azaldu du alkateak: «Eusko Jaurlaritzak bultzatutako programa den arren, ahalik eta eskaintza gehien kudeatzen ahalegindu gara. Behin-behineko kontratuak dira, 6 hilabetekoak. Epe laburra den arren, bitarte horretan lana behintzat izango dute kontratatutako pertsonak».

Urteurrena



JUAN JOXE AMENABARRO ITURRIOZ

-VIII. URTEMUGA -
(2004-III-18)

Ortziko formak erakusten ditu ur gainak
guk haietan zu imajinatzen zaitugu,
etenik gabe
Beti maitatuko zaitugu, attona
Etkekoak

RAMON HERRILLO MOTO



Beti egongo zara gure bihotzetan

Langaitz Ikastola

Errenteria-Oretran, 2012ko martxoaren 16a

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

Tolosan gazte batek izandako lan istripu larria salatu du LAB sindikatuak

Eredakzioa Tolosa

Pasa den martxoaren 7an Tolosan gertatutako lan istripu larria salatu du LAB sindikatuak. Usabal poligonoan kokaturik dagoen Industrias Miguel Olano enpresan gertatu zen istripua, sindikatuak jakinarazi duenez.

Istripu horretan, Berastegiko 19 urteko langile bati bobina bat gainera erori eta larriki zauritu zen. LAB sindikatuak, lan istripu larri hori salatzeaz gain, zauritutako langileari eta bere familiari elkartzatzen adierazi diote.

Lan erreformari buruzko herri batzarra egingo du ELAk, hilaren 21ean

Eredakzioa Tolosa

Tolosaldeko ELA sindikatuak deituta, Espainiako Gobernuak onartu berri duen lan erreformaren inguruko herri batzarra izango da datorren asteazkenean. Tolosako kultur etxean izango da, eta bi txanda egingo dituzte: goizean 10:00etan, eta arratsaldean 18:00etan.

ELA sindikatuak adierazi duenez, «urtean langileen borroka-lortu diren eskubideak deuseztuak izango dira, eta geldiarazi egin behar ditugu».

PSE-EEren idatzietan aurrerantzean, atez atekoaren aurkako irudia

Eredakzioa Tolosa

Tolosako PSE-EEK alderdiaren irudiaren alboan atez ateko bilketa sistemaren aurkako anagrama erabiliko du bere agiri orrietan. Honekin, hondakinen bilketa sistemaren aurka dauden tolosarrek bat egingo dute. Aurka egiteko prestatu duten irudia «originala eta identifikatzeko erraza» da. Gipuzkoako mapa eta zaborrez betetako edukiontzia ditu, «Atez Ate ez, eskerrik asko» jarri.

Martxoaren 29ko greba orokorrarekin bat egin dute lau alderdi politikok

EAK, ezker abertzaleak, Aralarrek eta Alternatibak biharko giza katean parte hartzera deitu dute

Imanol Garcia Landa

Tolosaldeko EAK, ezker abertzaleak, Aralarrek eta Alternatibak bat egin dute martxoaren 29rako deituta dagoen greba orokorrarekin. Euren iritziz, Espainiako Gobernuak martxan jarri nahi duen lan erreformak «euskal langilegoa bizi baldintza kaxkarrera kondentatzea dakar». Bestalde, agerraldia egin duten ezkerreko indar independentistek eta soberanistek «burujabetza ekonomiko eta politikoa» behar dela esan dute. «Derrigorrezkoa zaigu, bestelako eredu sozioekonomikoa eraikitzea», gaineratu dute.

Tolosako udaletxeko batzar aretoan egin dute agerraldia, eta bertan izan dira EAKo Hasier De los Rios, ezker abertzaleko Eider Imaz, Alternatibako Gorka Lizaso eta Aralarreko Inaki Irazabalbeitia. Tolosan larunbatean egingo den giza katean parte hartzeko



Hasier De los Rios, Eider Imaz, Gorka Lizaso eta Inaki Irazabalbeitia, agerraldiaren une batean. IGL

deialdia ere egin dute lau alderdietako ordezkariak.

Lan erreforma berria «emakume-gizon langileek borroka lur-turiko eskubideak kolpatzera» datorrela esan dute agerraldian. «Inposatzen diren neurri hauek modu itsuan jarraitzeak espainiar estatuak bizi duen egoera berrera garamatza», gaineratu dute. Horrez gain, greba orokorrean biltzen diren indarrak «aurrera begirako aldaketa soziala eta politikoa eraikitzeko» lekukoa hartu behar dutela diote. Sindikatu eta

eragile sozialekin elkarlanean aritu behar direla esan dute lau alderdiek.

Greba bere egingo dute

Bihar giza katea egingo dute Tolosako Trianguloa plazatik abiatuta, lan erreformaren aurka eta martxoaren 29ko greba orokorrean parte hartzeko gonbita egiteko. Lau alderdiek bat egin dute deialdiarekin, aurretik LAB sindikatuak, Bilgune Feministak eta gazte independentistek egin zuten bezala. 12:00etan hasiko da

ekitaldia. Lau alderdietako ordezkariak esan dutenez, «martxoaren 29ko greba gure egingo dugu».

Kalera ateratzea «derrigorrezkoa» dela esan dute, eta sindikatu eta eragileekin bat egin dutela egingo diren mobilizazioetan. «Sozietatean gero eta zabalago den salaketa eta aldarriak gure egiten ditugu eta burujabetza ekonomiko-politikoa-aren alternatibak sortzeko norabidean konpromisoa hartzen dugu», gaineratu dute.

Tolosako Eusko Alkartasunak «herritarrak ez nahasteko» eskatu dio alderdi jeltzaleari

Tolosako hirigintzako plan orokorra eta Voith-Gorostidi bi gauza ezberdin direla esan du EAK

Itzea Urkizu Tolosa

Voith-Gorostidi eremuaren hari-jeltzaleek pasa den astean egingo daren adierazpeni erantzun diete Tolosako EAKo kideek, Tolosako hirigintzako plan orokorra eta Voith-Gorostidi bi gauza ezberdin direla esanez, eta herritarrak ez nahasteko eskatuz. EAK Tolosako hirigintza plan orokorrari baiezkotza eman ziola onartu dute, baina plan hori Voith-Gorostiditik bakarrik ez duela osatzen azaldu dute. Alde batetik, Larramendik proiektua aurrera eramateko arau subsidiarioak aldatu zituztela azaldu dute, eta horren aurka egin izan direla beti.

Era berean, «gehiegizko etxebizitzak» nahiz lurperatzearen aurka azaldu dute euren burua: «Eusko Alkartasunak beti aurka-



Eusko Alkartasuneko kideak, agerraldian. I. URKIZU

ko bozka eman zuen Voith-Gorostidiko gaietan, osoko bilkuretan, eta horren adibide da 2010ean beste alderdi batzuekin batera aurkeztutako mozioa. Garai hartan

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosako Korreo kalean, 67m²-ko etxebizitza salgai. Egoera onean dago; berriua dago eta igogailua dauka. 653 70 88 36.

aldea bozkatu zuen zinegotzia, Andoni Iturzaeta jauna, ez zegoen Eusko Alkartasunaren barruan, Hamaika Bat alderdian baizik; gainera, osoko bilkuretako akte-tan azaltzen den bezala, kide egin

gabeko zinegotzia zen». Honi, gauzak adostasunez egin direla esatea «ez dela egia» gaineratu diote.

Azkenik, EA alderdia Tolosako udal gobernuak Larramendiko lurperatzearen inguruan ireki duen parte hartze prozesuarekin bat datorrela azaldu du Hasier De los Rios ordezkariak: «Gure laguntza izango dute behar duten guztietan».

Horrez gain, inork ez duela Eusko Alkartasuna irentsi esan diote EAJri: «Eusko Alkartasuna bi koalizioetako, Bildu eta Amaiur, bultzatzaileetarikoa da. Bi koalizio hauen barruan Euskal Herriaren alde lanean jarraituko du, eta nola ez, Bilduren barruan egonik, Tolosako herri-aren alde».

IBARRAKO TXONTXO UDAL LUDOTEKAK BEGIRALEAK behar ditu 2012 Udarako

- Derrigorrezkoa da: BEGIRALE titulu eta EGA izatea.
- Lehenetsiko da Ibartarra izatea.
- Curriculuma bidali: mibarguren@uzturpe.ikastola.net "2012ko begiralea" zehaztuz.
- Curriculuma jasotzeko epea: apirilaren 16a



AurrezAurre egitasmoaren barruan, emakume artisten sormen lanekin osatutako erakusketa antolatu dute Aranburun. Tolosako nahiz inguruko emakumeen artelanak, apirilaren 14ra bitarte izango dira ikusgai.

Emakumea eta artea, aurrez aurre

Itzea Urkizu

Tolosako eta inguruko emakumeek sortu dituzte, datorren apirilaren 14a bitarte Aranburu jauregian ikusgai izango diren artelanak. Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, Tolosako Udalak bigarren antolatutako AurrezAurre egitasmoaren barruan, argazkigintzaz, eskulturaz, pinturaz nahiz *collage*az gozatu ahal izango dute bisitariak.

Emakumezkoek bizi ditzaketen hainbat errealitate irudikatu ahal izango ditu erakusketako bisitariak, arte adierazpen desberdinen bitartez: genero indarkeria gogora ekarriko dute zenbait lanek; transexualitatearen irudi bizi ikusgai izango da; haurdunaldia eta amatasuna ere protagonista izango dira; eta emakumea oholtza gainean ere erakusgai

izango da. Horrez guztiaz gain, sahararren errealitatea, eta Euskal Herriko paisaia nahiz baserriar gazteek ere, izan dute beren txokoa erakusketan.

Josebe Iturrioz Berdintasun teknikariak inaugurazio ekitaldian nabarmendu zuenez, emakumeek sortutako artea plazartzea izan da helburu nagusia, zenbaitetan ezkutuan geratu izan den hori erakustea alegia, artista hauen lana baloratzeko.

Apirilaren 14ra bitarte Aranburun ikusgai izango diren artelanen sortzaileak Maider Zunzunegi, Agara Agirre, Idoia Eloseggi, Arantxa Munita, Maialen Zabaltza, Oihana Ugarte, Naiara Delgado, Nisa Goiburu, Cristina Zaldivia, Nerea Ugarte, Txixi, Julia Torrado, Eider Elduaian, Itziar Bastarrika, Amaia Gaztañaga, Helena Cancelo, Maria Cueto, Cristina Gomez, Paula Fleming,


Idoia Sanchez, Ester Poveda, Vanessa Alzate, Susana Segurola, Ana Belen Jarrin, Dolo Navas, Tytti Thusberg, Miren Gonzalez eta Miren Atxaga dira.

AurrezAurreko ikastaroak

Erakusketaz gain, egitarauaren barruan, hainbat ikastaro antolatu dituzte. Gaur arratsaldean, eta bihar goizean nahiz arratsaldean, esaterako, birziklapen tailerra izango da Tytti Thusbergen eta Dolo Navasen eskutik.

Ana Belen Jarrinek, berriz, argazki tailerra dinamizatuko du datorren martxoaren 26tik 29ra bitarte. Era berean, Bilgune Feministaren eskutik, autodefentsa ikastaroa izango da martxoaren 31n. Azkenik, ikus-entzunezko tailerraren data zehazteke dago oraindik.

Izena emateko, 943 67 03 83 telefonora deitu behar da.



Bertso-bazkaria

Martxoak 31,
Larunbata
Lizartzan

Lekua:

Goikoetxea sagardotegia

Ordua: 14:00

Antolatzailea:

Lizartzako Bertsozaleak

Bertsolariak:

Sebastian Lizaso, Andoni Egaña

Eskusoinua: Manolo Ibaguren

Izena emateko:

Xabino 609 017 081





Abaltzisketa herriaren sarrera Orendain aldetik etorrita. E. MAIZ



Ibilbidearen erdian, eserita, paisaia eta atsedenez gozatu daiteke. E. MAIZ



Abaltzisketatik Orendainerako bidea errepidetik egin behar da. Joan eta etorria egiteak 10.700 metroko luzera du; landa eremuak eta naturak eskaintzen duen paisaia zoragarriaz gozatu daiteke.

Begietatik barneratzen den lasaitasuna

Eneritz Maiz

Abaltzisketako autobus geltokitik hasiko da ibilbidea. Orendain herriraino joan eta etorria egiteko gidari lanak egingo dituen, errepide nagusia izango da. Ez dago galtzeko inongo arriskurik. Joan-etorria eginez gero, 10.700 metro izango dira egin beharrekoak. Bi herrietan dago zer ikusia, eta oinez edo txirrinduan, egun pasa ederra egiteko aukera ematen du.

Abaltzisketako herrigunean eliza, udaletxea eta herriko plaza izango dira lehen begiratuan ikusiko direnak. Baina eraikuntzak gutxietsi gabe, Txindoki mendiak erakarriko du begirada. Ibilbidearekin hasi aurretik, mendiaren handitasunaz eta edertasunaz gozatzeko tarte bat hartzea ezinbestekoa izango da. Alboan, ezker-eskuin, Balardi eta Zuza Gaztelu izango ditu.

Abaltzisketa, 372 metrora dago. San Juan Bataiatzailearen eliza, XVI. mendekoa da, eta XIII. mendetik zegoen eliza zaharraren ordeza eraiki zuten. Erromanikoa azken urteetako zen ataria baino ez zuten mantendu. Aipatzekoa da kanpandorreko kanpaietako bat 1493koa dela. Frontoi estalia eta jolas lekua ere elizaren alboan daude. Azpiko aldean, berriz, Goibegi eraikin modernoa dago.

Herrigunea atzean uztearekin batera, ezkerretara begiratu Aizkorriko mendilerroa ikusiko da. Baita, Gaintza herriko eliza, etxe eta baserriak ere. Bidean, Abaltzisketako lehen baserriarekin egingo du topo ibiltariak, eta jarraian, gaur egungo eraikinak izango ditu bidelagun. Gutzira, maldatxo bat igo beharko da.

Naturaren aberastasuna

Bide bazterretik, ardiak, behorrak, oiloak, behiak,... ikustea oso normala izango da. Naturaz betebetean gozatzeko aukera eskaintzen du; txorien txorrotzioen artean, beleen orroak entzungo dira. Astoaren atzeko gurdian eserita doan baserriarekin ere topo egin daiteke. Errepide lasaia da, eta auto gutxi ibiltzen dira. Maiz, oinezkoek eta txirrindulariek hartzen dute bidea.

Erdibidean, ibilbide lau-laua izango da, eta paisaiari begiratzu Maioak, Añi, Otsabio, Erniozabal, Intxurre, Burumendi,... ton-torrak ikusiko dira. Atsedean hartu nahi duenak, enbor batekin eginiko aulkia topatuko du. Orendaingo herrigunea eta Baliarriaren herria ere ikus daitezke. Jarraian, errepideak beheko joera hartuko du.

Metro batzuk jaitsi ostean, Orendain herrigunera igotzeko bideturutzera iritsiko da. 750 metro baino ez dira faltako ibilbide erdia bukatzeko. Hori bai, errepideak gorako bidea hartuko du, eta metro gutxi horiek maldan gora izango dira. Herrigunera sartu baino lehen, herriko elizarekin egingo du topo ibiltariak. Be-

rritua dago Jasokundeko Andra Mariaren parrokia. Urte eta ahaletin askoren ondorioa da. Dokumentuek diotenez, 1764. urtean Martin Karrerak, aurreko eliza, hau da, 1525ean eraikitakoa, birmoldatu zuen. Neurriak handitu zituen eta aldarearen orientabidea ere aldatu egin zion.

Elizari begirada kenduta, parez pare, herriko udaletxearen eraikina ikusiko da. Aurrean, zelai berde eta handia du; haurrekin jolasan ibiltzeko paregabea izan daitekeena. Eraikina deigarria da, eta estilo neoklasikoa du; eskola greko-erromatarreko elementuak ditu. Eraikinaren erdialdea ikusteak benetako erromatar tenplu batetara bidaiatzeko aukera ematen du. J. Antonio Olagibel arkitekto gasteiztarrek diseinatu zuen 1787. urtean, eta Manuel Balda ataudarrak 1790 eta 1797 urte bitartean eraikia izan zen. Gaur egun, udaletxearen azpiko aldean, herriko Ostua kokatzen da.

Herrigunea

Herrigunetik buelta bat emanez gero, etxebizitza dotoreak ikusiko dira. Bi bizitzakoak edo bakarrekokoak dira gehienak. Eguraldi txarra eginez gero ere, frontoi estalia badu. Eskolapietako eraikina zegoen lekuan, kultur etxea eraiki dute, eta honen alboan, etxebizitzak. Paisaia ezin hobea ikusiko da.

Bueltan Abaltzisketara joan nahi izanez gero, errepide beretik egingo da itzulera. Landa eremuak eskaintzen duen xarma, begietatik barneratzen da, eta lasaitasuna dakar berarekin.

FATXI JAGOBA AZPIROTZ MANTEROLA



DATUAK

- **Luzera.** 10.700 metro.
- **Ezagarriak.** Joan-etorria.
- **Hurbilketa.** Renfe trenean Tolosara edo Alegiara, eta gero autobusean.
- **Hasiera-bukaera.** Abaltzisketako autobus geltokian.
- **Zailtasun maila.** Orokorrean ibilbide erraza da, malda txiki batzuk tarteko.
- **Azalpenak.** Bi herriak elkartuz egin daitekeen ibilaldi laua da, eta Aralarko parke naturala parez pare dugu.
- **Interesguneak.** Naturgunea. Abaltzisketako udaletxea, Goibegi eraikina eta eliza. Orendaingo udaletxea, eliza eta kultur etxea.



Orendaingo udaletxeak, zelai ederra du aurrean jolasteko. E. MAIZ

Mahala Tolosaldeko Triatloi Taldeko bi kidek lortu dute aurtengo Euskadiko Txapelketa neguko triatloian: Igor Aranburu tolosarra eta Maider Gaztañaga ordiziarra. Lorpen handia eskualdeko triatloi taldearentzat.

Igor Aranburu • Triatloilaria

«Isabako proban lehen postuetan ikusi nuen nire burua, eta horrek asko motibatzen du»

I. Garcia Landa

Txikitatik kirola egin du Igor Aranburuk (Tolosa, 1969). «Nire gurasoei esker daukat gaur egungo kirol zaletasuna», esan du Aranburuk. «Beti izan dira nire ondoan eta erraztasun guztiak eman dizkirate kirolaz gozatzeko. Beti ere, askatasunez eta behartu gabe». Orain lau urte dago Mahala Tolosaldeko Triatloi Taldean (TTT), eta azken bi denboralditan parte hartu du neguko triatloietan. Iaz Euskadiko Txapelketa irabazi zuen taldekoa, eta aurtengo txapelketa beraren banakako saria eskuratu du.

Nola prestatu duzu aurtengo denboraldia?

Irailetik hasi nintzen pixka bat prestatzen. Aurtengo Euskal Herriko Mendi Duatloiko Txapelketa egin da lehenengo aldiz, eta zortzi probatik lautan parte hartu nuen. Urtaurrean Jakan egin zen Espainiako Txapelketan parte hartu nuen. Gero, Ansokoa ere parte hartu nuen. Reinosaia bertan behera gelditu zen, eguraldi arazoengatik.

Zer moduz joan zen Espainiako Txapelketa?

Lehenengo ezustekoa hor eman nuen. Zortzigarren amaitu nuen (...). Ikusi nuen entrenamenduetan emaitzak ematen ari zirela eta motibatuta bukatu nuen txapelketa hori. Esperantzak bantuen txukun aritzeko, eta lehenengo hamar postuetan bukatzen banuen, emaitza ona izango zen. Hala izan zen eta horrek motibatuz gehiago eman zidan aurrera jarraitzeko.

Eta Isaban, bosgarren bukatu zenuen, eta Euskadiko Txapelketa eskuratu zenuen. Hor aurrean egotea espero zenuen?

Espainiako Txapelketan nire aurretik bukatu zuten batzuk ez zuten parte hartu, baina maila ona ere bazegoen. Aukerak ikusten nituen aurrean egoteko.

Proba gogorra izan omenen.

Eguraldiak ez zuten lagundu, egia esan. Hotz handia ez zuten egiten, baina korrika hasterako euri pixka bat hasi zuten, eta bizikleta hartu genuenerako bustita geunden. Bizikletarekin goraka joan ginen eta lainotuta zegoen, hotz handia-



HITZA

goa egiten zuten eta elur busti pixka bat ere bota zuten. Pertsona batek ez zuten proba amaitu. Proba oso biziak dira, bi ordutan esfortzu handia egiten duzu, eta beraz esijentzia handia da.

Eta nola joan zen lasterketa?

Proba hasi zen eta seiko talde bat aritu ginen korrika. Laugarren iritsi nintzen boxetara, eta gero hirugarren atera nintzen handik. Bizikletan aurretik zihoazen bi nafarrak pixkana harrapatu ni-

tuen, eta hiruak ondo moldatu ginen erreleboak ematen mendea iragotzen hasi arte. Hor batek alde egin zuten, eta ni bigarren joan nintzen, baina kataluniar batek harrapatu ninduen, eta, beraz, hirugarren iritsi nintzen eskiatzen hasteko zatira.

Nola ikusten zenuen hor zure burua?

Hor pentsatzen hasi nintzen podiumean sartzea banuela eta Euskadiko txapelketa ere izango nintzekeela. Kataluniarra, bigarrena,

bi minutu eta erdira nuen, eta hura harrapatzen saiatu nintzen. Pixka bat emozionatu nintzen. Lehenengo itzulian 40 segundo jan nizkion, baina bigarren eta hirugarren itzulian hustu egin nintzen, eta gero atzetik beste bi nafar etorri ziren eta azkenean bosgarren geratu nintzen, laugarrenetik bost segundora. Gustura geratu nintzen, lasterketan hor aurrean ikusi nintzelako. Horrek asko motibatzen du.

Eta zer suposatzen du zuretzako Euskadiko txapelketa irabazteak? Orain arte lortutako lorpen handiena da?

Pertsonalki bai. Inongo lorpenik izan gabe, izan ditut beste probetan sententzio onak. Oroitzapen onak ditut, baina maila honetan ez nuen sekula irabazi txapelketa bat. Egian esan, ezustekoa izan da.

Aurrera begira zer asmo duzu?

Neguko triatloian denboraldia bukatu da. Martxoaren bukaeran Frantziar triatloi bat badago. Paun hasi eta Aubisqueko eski pistetan bukatzen da. Hor parte hartzeko asmoa daukat. Hortik aurrera kirola egiten jarraituko dut, baina presio gutxiagorekin. Nire helburua neguko triatloiak ziren. Orain gogoia dudanean duatloietan edo triatloietan parte hartzeko, horretan saiatuko naiz, baina helburu finkorik gabe.

Maider Gaztañaga • Triatloilaria

«Espainiako Txapelketako kanporaketa eta gero, arantza kentzeko joan nintzen Isabakora»

I. Garcia Landa Tolosa

Maider Gaztañaga (Ordizia, 1974) sasoi batean dago. Tolosarekin lotura estua du, bertakoa baita senarra eta Tolosan bi izan baitziren urte batzuetan. Mahala Tolosaldeko Triatloi Taldeko (TTT) kidea da eta neguko triatloian bikain ari da denboraldi honetan. Espainiako Txapelketan lehen postuan sailkatu zen, baina gero, beste hainbat partaiderekin batera, probatik kanporatu zuten. Isabako proban Euskadiko txapela janztea lortu zuen. Orain hiru urte hasi zen triatloi motz batzuk egiten, eta iaz Bilboko eta Zarauzko triatloi luzeak egin zituen. Aurtengo, «pixka bat serioago» hartu ditu prestaketak.

Noiztik duzu lotura neguko triatloietan?

Orain dela hamabi urte Jakako triatloia egin nuen eta aurtengo denboraldira arte ez da berriro egin. Igeriketa egin izan dut batez ere, eta beka batekin aritu nintzen AEBn. Horren ondoren hain-



HITZA

bat kirol egin ditut, tartean eskia ere bai. Jakakoa gustatzen zitzaidan, eta bertara joan nintzen aurtengo probatzerara. Gero Isabakoa egin dut Jakan gertatu zenaren ondoren.

Jakan Espainiako Txapelketa irabazi zenuen, baina probaren ondoren kanporaketa izan ziren, tartean zurea. Zer gertatu zen?

Korrika bost itzuli eta erdi egin

behar ziren, eta ni bosgarren joan sartu nintzen boxetan. Emakumezkoetan berdina egin zuten %30ek. Epailak ez ziren konturatu eta proba guztia egin genuen. Helmugetara iritsi, dopingeko proba pasatu genuen, domina eman ziguten, eta handik lau ordutara, sari banaketa ofizialean, esan ziguten kanporatuta nengotela. Gehienbat arantza hori ken-

tzeagatik joan nintzen Isabara, baina berez ez nuen asmorik.

Bazenekien Jakan hain ondo egingo zenuela?

Ez, ez nuen espero, baina maila oneko parte hartzaile batzuk falta ziren.

Eta, Isaban, arantza kendu zenuen.

Nola joan zen proba?

Ibilbidea oso polita da. Korrika egiten genuen zatia pista batetik aritu ginen. Nik lehena bukatu nuen, eta gero bizikletako zatian, bigarren iritsi nintzen. Eskiatzen, El Ferrialean, hiru itzuli ziren. Bigarren itzulian aurretik jarri nintzen. Izugarritzko hotza zegoen. Ibilbide oso polita izan zen, baina eguraldiarengatik oso gogorra bihurtu zen.

Zuk, gainera, hipotermiarekin bukatu zenuen.

Bai, bigarren itzulian hotza sumatzen nuen. Inoiz ez dit hipotermiarik eman. Oso baldar sentitzen hasi nintzen, erori egiten nintzen, eta esku eta behatzetan sentibilitate pixka bat galtzen hasi nintzen.

Hala ere, proba bukatu zenuen.

Eskiatzen egin beharreko itzulian lehengo beheak eta gero gorakak. Beherakoan, sekulako hotza nuenez, igotzen hasteko gogoa nuen, berriro berotzeko. Azkenean, helmuga igaro eta gero anda gurgildunean egon nintzen hipotermia pasatu arte.

Behin neguko triatloiak bukatuta, zer asmo duzu?

Orain duatloiak eta gehienbat udako triatloiak egingo ditut. Bilboko eta Zarauzko triatloiak egiteko asmoa dut. Aurtengo Zarautzen Euskadiko Txapelketa izango da jokoan.

Eta proba horietarako zer helburu duzu?

Ez dakit. Gauza horiez hitz egitea ez zait gustatzen. Nahiago dut proba egin eta zer gertatzen den ikustea.

Iaz nola aritu zinen proba horietan?

Bilbon, orduan Euskadiko Txapelketa bertan jokatzeko zela, hirugarren egin nuen. Virginia Berasategik irabazi zuen eta bigarren Itsaso Leundak egin zuten. Zarautz ospetsuagoa da; hor seigarren bukatu nuen. Askotan salutzen du lehen postuak, baina agian garrantzi handiagoa du bosgarren edo seigarren postu batek, parte hartzen dutenak kontuan hartuta.

«Tentsio handiko partida» espero dute gaur, Barriolak eta Bengoetxeak

Bi leitzarren arteko lehia izango da Urdulizko frontoian jokatu den Binakako Txapelketako partidari

Irigo Terradillos

Bi leitzar pilotariren aurrez aurreko polita izango da gaur, Urdulizko (Bizkaia) pilotalekuan, 22:00etan hasiko den jaialdian. Hain zuzen ere, Barriola eta Bengoetxea ariko dira Binakako Pilota Txapelketako finalerdietarako txartela lortzeko lehian.

Bengoetxea VI.a eta Apraizek osaturiko bikoteak 105,7, 104,9 eta 105,3 gramoko pilotak aukeratu zituzten herenegun, Urdulizen eginitako material aukeraketan. Euren aurkariek, hau da, Irujak eta Barriolak, 105,4, 106,8 eta 105,5

gramokoak hobetsi zituzten gaurko partidarako.

Abel Barriolaren ustez, partida «zaila eta irabazteko konplexua» izango da. Horregatik, duten onena emango dute. «Bi bikoteak egoera antzekoan gaude, biek behar baitugu irabazte txapelketan aurrera egiteko; irabaziz gero hirugarren partida jokatu genuke, eta galduz gero, etxera. Horregatik, tentsio handiko partida izango da», azaldu du Barriolak. Partida on bat egin eta 22ra iristeko helburu argiarekin jokatu du. «Pilotan ez dago sekretu handirik, teoria nahiko ulerterraza da; atzelari aurkaria menperatzen saiatu behar da, zure aurrelariak aukera izan dezan tantoa bukatzeko, eta gu horretan saiatuko gara», adierazi du. Pilotalekuari dagokionez, Urdulizkoa «bikaina eta inolako aitzakiarik ez duena» dela dio, eta aukeratu-

tako pilotekin, berriz, «gustura» daudela adierazi du Barriolak.

Oinatz Bengoetxearen arabera, bestalde, partida «oso gogorra eta garrantzitsua» da, baina oraindik ere aurrera egiteko aukera dutela uste du. «Txapelketan hamabi partida jokatu ditugu eta datozen bi partidak irabazi behar ditugu sailkatzeko, beraz, horretara joango gara», adierazi du Bengoetxea VI.ak. Gaurko partidako aurkariak «oso gogorrak» direla onartu du. «Irujak eta Barriolak ederki erakutsi dute maila handiko pilotariak direla, eta zaila izango da beraiei irabaztea, baina gu gogotsu irtengo gara gure lana egitera», dio.

Txapelketan Irujo eta Barriolari aurre egiteko gai izan dira benoetxea VI. a eta Apraiz, beraz, gaurkoan ere errepika daiteke; «partida guztiak desberdinak dira. Beraiek duten mailarik one-

na erakusten badute zaila izango da, baina guk ere gure onena erakutsiz gero, eta guztia ongi egiten badugu, aukerak izan ditzakegu».

Berria Txapelketa, amaitzean

Bestalde, Berria Pilota Txapelketa ari da pixkanaka finalera iristen. Asteburu honetan, hain zuzen, finalaurrekoak jokatu dituzte. Gaur, Galdakaon eskualdeko Aurrera Saiatzaldea eta Galdakao ariko dira nor baino nor, 19:30etik aurrera, eta etzi, igandean, Tolosako Beotibar pilotalekuan izango da eskualdeko Zazpi Iturri taldea eta Oberenaren artekoa, 17:00etatik aurrera.

Udaberri Txapelketari dagokionez, Aurrera Saiatzaldea pilotariak Ordizian, Zestoan eta Usubilen dituzte gaur partidak, eta bihar goizean, Bidaniako frontoian jokatu dute.

→ Laburrak

Zuhaitz eta San Jose egunak, asteburuan

BELAUNTZA ▶ Bihar Zuhaitz Eguna ospatu dute Belauntzan. 10:30ean jarri dute hitzordua Martintxo ondoan, eta segidan landareak landatzea joango dira. Herriko haur eta gazteei dei berezia egin die Belauntzako Udalak, «beraiek izango baitira etorkizunean natura zainduko dutenak». Bestalde, etzidamu San Jose Eguna izaki, 11:00etan meza izango da izen bereko ermitan, eta gero, hamaiketako.

Lan erreforma dute gaur, 20:00etan hasita

LEITZA ▶ Lan erreformari buruzko hitzaldia izango da datorren asteazkenean, hilaren 21ean, Aurrera elkartearen LAB sindikatuak antolatutako hitzaldia 19:00etan hasiko da, eta herri-tar guztiei zuzendua dago.

Irudia ◊ Ibarra

LASTERKA, ELKARTASUNA XEDE HARTUTA

Ehunka gaztetxori ezagunago zaie orain Mendebaldeko Sahara, eta bertako Tichla herria. Uz-turpe ikastolan sahararrak eta euren egoera ezagutzeko hainbat ekimen burutu dituzte urte hasieratik, eta atzo eman zioten amaiera, Sahararen aldeko Elkartasun Kilometroarekin. Bada, gaztetxo ugari egin zuen korri, eta dirua batzea ere lortu zuten. Tichla herriko ikastetxea eta erietxea hobetzeko erabiliko dute bildutakoa. rc



Irudia ◊ Leaburu-txarama



SAHARAR HERRIARI BABESA

Herenegun egin zuten osoko bilkura Leaburu-Txaramako udaletxean, eta bertan onartu ziren gaitako batean, saharar herriari babesa eta elkartasuna adierazten diona zegoen. Tolosaldea Sahararekin elkarteak aurkezturiko mozioak sahararren eskubideak bete daitezela aldarrikatzen du. Hain justu, egunotan eskualdean den Mohamed Salem saharar ekintzailea izan zen bilkuran. HITZA

Domina ugari lortu dituzte judoka tolosarrek Gipuzkoako Txapelketan

Urrezko domina bat eta hiru brontzezko eskuratu dituzte; Euskadikoan bi brontze etxeratu dituzte

Erredakzioa Tolosa

Emaitza bikainak lortu dituzte tolosar judoek azken txapelketan; Joritz Seguroiak hirugarren postua Euskadikoan, Maddi Amianok urrea Gipuzkoakoan, Aritz Aramendik brontzea Gipuzkoakoan, Markel Iraolak bron-

zeta Gipuzkoakoan eta Euskadikoan eta Aimar Intxaurrendok brontzea Gipuzkoakoan.


Joritz Iraola 66 kilotan lehiatu zen jokatu berri den Gipuzkoako Judo Txapelketan, baina «arbitroaren erabakien ondorioz, dominarik lortzeko aukerarik gabe geratu zen». Euskadiko junior mailako txapelketan, ordea, hirugarren postua erdietsi zuen.

Maddi Amianok, bere aldetik, 44 kilokoan mailan, txapeldu geratu zen Gipuzkoako Txapelketan, eta orain Espainiako Txapelketarako sailkatzeko esperoan dago tolosarra.

Aritz Aramendi 55 kilotan lehiatu zen Gipuzkoako kadete mailako txapelketan. Oso gutxi-gatik ez zen finalerako sailkatu, eta brontzezko dominarekin konformatu beharra izan zuen.

Markel Iraolak ere brontzezkoa lortu zuen Gipuzkoakoan, 81 kilotan, eta gauza bera egin zuen Euskadiko Txapelketan, bi aste beranduago.

Bestalde, Aimar Intxaurrendok 23 urtez azpikoetan lehiatu zen Gipuzkoakoan, 73 kilotan. Hobekuntza handia ari da izaten, eta horren adierazle, brontzezko dominarekin itzuli zela etxera.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebecka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitzaaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Alegia, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialde, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

Irudia Inauterietako Argazki Lehiaketa



PAILAZOEK IRABAZI DUTE SARIA

Jon Balerdik irabazi du Inauterietako Argazki Lehiaketa Eguzkitza sagardotegian Astelenitan ateratako argazkiarengatik. Balerdik Bizkaiko Ajangiz herrian dagoen Astobieta nekazalburu-moan bi pertsonentzako gau bateko egonaldia irabazi du. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariak irabazlea zoriondu nahi du, eta baita lehiaketan parte hartu duten pertsona guztiak, bai argazkiak bidaliz, eta baita botoa emanaz ere. HITZA

Agurrak



Zorionak artzaie!
Laster artaldean izango hariz.
ALPERRAK KOADRILA

Agenda

DEIALDIAK

- **Tolosa.** Ahoz Aho jaialdiaren barruan, gaur: 18:00etan Badut eta Sasa Guadalupe, San Estebanen; eta 20:30ean Ahozko-tasunaren gala nagusia, Leidor aretoan. Bihar 11:30ean haurrei zuzendutako Apika, Bonberean; 17:00etan Irantzu Mantxo eta Laura Dippolito, Otsabin; 23:30ean Badut eta Gonzo Velazko, Errota tabernan. Igandean, 11:30ean, Alabazan, Bonberean, haurrei zuzenduta.
- **Anoeta.** Askapenak udan antolatzen dituen brigaden aurkezpena egingo du gazte-txean gaur, 18:00etan. Palestina bizitakoak ere kontatuko dituzte.
- **Tolosa.** Amalur jardunaldien barruan, Antxon Arzaren hitzaldia gaur, 19:30ean, Topic-en.
- **Baliarrain.** Erabilera anitzeko eraikina inauguratuko dute bihar, 11:00etan.
- **Berastegi.** Gazte Festen barruan gaur, 18:00etan presoen eskubideen aldeko futbol partida: Berastegi-Leitza; ondoren, triki poteoa; 21:00etan herri afaria; eta 00:30ean Mariantozblai eta Kantuki taldeen kontzertuak. Bihar, 15:00etan mus txapelketa; 18:00etan Joxe Mari Karrearen bakarrizketa; 19:00etan sagardo dastatzea eta toka txapelketa; eta 00:00etan Ingo al deu taldea.
- **Leaburu-Txarama.** Zuhaitz Eguna ospatuko dute, bihar. Le-aburuko plazan elkartuko dira

- 16:00etan eta Txaraman 16:30ean, zuhaitzak landatze-ko. Bestalde, igandean Larresoroko herritarrekin bazkaria egingo dute Ikaztegiatan.
- **Belauntza.** Zuhaitz Eguna ospatuko dute, bihar. Landare batzuk aldatuko dituzte Martintxo ondoan, eta horretarako goizeko 10:30ean elkartuko dira. Bestalde, asteleheneko San Jose eguna ospatzeko, 11:00etan meza egingo dute San Jose ermitan eta ondoren hamaiketa-koa egingo dute.
- **Villabona.** Txan Magoaren *Ezer ez da dirudiena* lana igandean, 16:30ean, Gurea antzokian.

ZINEMA

- **Anoeta.** 80 egunean gaur, 22:00etan Mikelasagastin.
- **Leitza.** *Le Havre* filma gaur 22:30ean, eta igandean 19:30ean. Ez da film gehiagorik egongo urria arte.
- **Tolosa.** Leidorren bihar, 17:00etan *Arthur Christmas* haurrentzako filma; eta 19:30ean eta 22:30ean, *Caballo de batalla*. Igandean 17:00etan *Arthur Christmas* eta 19:30ean, eta 22:30ean *Albert Nobbs*. Astelehenean, ikuslearen eguna, *Caballo de batalla* ikusi ahal izango da, 20:30ean.
- **Villabona.** Asteburu honetan *Sherlock Holmes* ikusi ahal izango da; bihar 19:30ean eta 22:15ean, igandean 19:30ean, eta astelehenean 21:30ean.

ZORIONAK PAULA eta JUSTO!



Farmaziak

GAUR

- **Ibarra.** L. Lejeune, Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Tel.: 112.

BIHAR

- **Ibarra.** Iturrioz, Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Tel.: 112.

ETZI

- **Tolosa.** Bronte, C. I. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Tel.: 112.

ETZIDAMU

- **Tolosa.** Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
- **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. Tel.: 112.

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

●●●● agurrak

LIZARRIBAR OINETAKOAK

Zatuz Arostegieta 9ko gure biltegiara!
STOCK-ean dugun guztia bukatu arte!

ORDUTEGIA
11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

TOLOSA • Arostegieta 9 • Tel.: 943 67 04 38